

ENPRESEN konfiantza

2024KO 2. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa




LABORAL
kutxa

2024KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2024ko bigarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, aurreko hiruhilekoan baino baikorragoa da ingurune ekonomikoa. Zehazki, enpresen % 13,9k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 55,8k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 30,3k, okerrera egingo duela.




1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, aurreko hiruhilekoan baino aurreikuspen baikorxeagoak dituzte enpresek 2024ko bigarren hiruhilekora begira. Zehazki, galdetutako enpresen % 20,0 uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 60,6ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 19,4k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 | JARDUERA

JARDUERARI dagokionez, 2024ko bigarren hiruhilekoan hobera egingo du % 14,5en iritziz, eta % 23,6ren arabera, okerrera. Laginaren gainerako % 61,8ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, eskabideek hobera egingo dutela eta prezioak igo egingo direla espero da. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenentzen % 22,4ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 19,4ren ustez, txikitu. Enpresen % 58,2ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 18,8k uste du igo egingo direla, eta % 70,9k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 87,8ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 12,1ek uste du errendimendu handiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi baikorragoa erakusten dute hirugarren hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek inbertsio-planei bultzada berria eman dietela.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 18,8k uste du gora egingo duela **2024ko bigarren hiruhilekoan**. % 16,4ren iritziz, beriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, galdetutako enpresen % 64,8 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 73,9k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 14,5ek langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 11,5ek guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2024KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 49,8ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baino handiagoa (45,9koa izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi baikorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2024ko bigarren hiruhilekoari** begira. Gainera, indizearen balioa 50etik hurbil egoteak jardueraren nolabaiteko egonkortasuna adierazten du. Balioa beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutakoaren antzekoa da. Espainian, esaterako, 53,9ko datua lortu zen otsailean, eta Eurogunean, 49,2koa, hil berean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 9,1ek uste du hobera egin duela eta % 33,3k okerrera egin duela. Bestalde, % 57,6ren iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitzen dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARA EDO I+G-KO EKIMENETARA bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 81,8 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 4,8k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZKEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 75,8ren ustez, bezeroei KOB RATZKEKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 17,0ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 7,3k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaturen % 79,4k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 9,1ek dio hobetu egin dela, eta, % 11,5ek, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berroneratzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inkesta honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten eta, bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen % 79,4k ezagutzen du plana, baina % 17,9k bakarrik eskuratu ditu funtsak.

Next Generation Funtsen ezagutza



Next Generation Funtsen eskurapena






2024AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

Otsailaren 6tik 26ra EAEn kokatutako 165 enpresari egindako inkesta
